

Formazioa

(aurrez-aurre, online eta irekia)

MATEMATIKA BIZIAK

Bada beste modu bat

Mikel Fernández Sánchez



Justifikazioa:

Matematika ez da soilik zenbakiak eta eragiketak; pentsamendu tresna bat da, mundua ulertzeko baliabide bat. Hala ere, hezkuntza-testuinguru askotan, irakaskuntza memoria hutsean eta prozeduren errepikapenean oinarritzen da, ulermenik gabe. "Matematika Biziak" formakuntzak ikuspegi hau irauli nahi du, esperimentazioa, sormena eta ulermenean oinarritutako ikaskuntza sustatuz.

José Antonio Fernández Bravo, Constance Kamii, Maria Antonia Canals... autoreak kontuan hartuta eta OAOA eta ABN mugimenduetan inspiratuta, proposamen honek ikasleek matematika berrasmatzeko aukera izan dezaten bilatzen du, esplorazioaren, manipulazioaren eta ingurunearekiko interakzioaren bidez.



Helburuak:

- Haurrek matematika nola ikasten duten ulertzea eta irakaskuntza haien prozesu kognitiboetara egokitzea.
- Ulermenean oinarritutako estrategiak garatzea, errepikapen mekanikoa saihestuz.
- Pentsamendu logikoa eta sormena sustatzea, ikasleei beren ebazpen-estrategiak sortzeko aukera emanez.
- Metodologia aktiboak aplikatzea, ikaskuntza esanguratsua, autonomia eta lankidetzat sustatuz.
- Akatsa ikaskuntzaren parte bezala ulertzea, ebaluazio formatiboa eta pentsamendu kritikoa bultzatuz.

Edukiak:

- Ikaslearen burmuinetik irakatsi: irakaskuntza ikaskuntza-prozesuetara egokitzeko estrategiak.
- Akatsaren papera matematiketan: zuzenketatik autoebaluaziora eta metakogniziora.
- Arazo irekiak eta pentsamendu sortzailea: ideia sortzea eta sormena lantzea.
- Pentsamendu matematikoa garatzeko estrategiak.
- ABN eta OAOA mugimenduetara hurbiltzea: kalkulu eta problema-ebazpenerako proposamen praktikoak.
- Manipulazioa eta jokoa ikaskuntza-tresna bezala.



Nori zuzendua:

Haur/Lehen Hezkuntzako maisu-maistrak.

Aurrez-aurreko saioak

- 10 orduko formazioa.
- Matematikaren irakaskuntza ulermenean eta esplorazioan oinarritzeko ibilbide sakona.
- 2 orduko saioa da gutxienekoa; hobe saio luzeagoak badira.
- Formazioak irauten duen bitartean, prozesuan landutako jarduerak praktikan jartzeko eskatuko zaie irakasleei.
- Proposamenean honako zehar lerro hauek landuko dira: ebaluazioa, inklusioa eta ikasleen eta irakasleen rola...

Emailer

Haurak ekinean" liburuaren egilea. Lehen Hezkuntza eta PT maisua. 25 urte baino gehiagoko hezkuntza ibilbidea du egin. Bere lanak Proiektuen Bidezko Ikaskuntza (PBI) du ardatz, ikasleen aniztasunera egokitutako hezkuntza inklusibo eta aktibo baten aldeko konpromisoa islatzen duena.

Hainbat ezaugarri eta testuingurutako eskoletan lan egin du, adin anitzeko taldeekin eta inklusioa eta parte-hartzea sustatzen duten metodologia aktiboak eta manipulatioak aplikatuz. Besteak beste, honako hauek dira bere espezialitateak: Proiektuen Bidezko Ikaskuntza, ikaskuntza kooperatiboa, ebaluazio-estrategiak eta inklusioa.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako zuzendaria izan da Mikel. Bestalde, Arabako Berritzegunen ere egin du lan, aholkulari gisa eta irakasleen formazioan.

Honetaz gain, hitzaldi eta formazio ugaritan parte hartu du hizlari gisa, PBI, ebaluazioaren, inklusioaren eta metodologia aktiboen inguruan dituen ezagutzak partekatuz.



Kontaktua:

Mikel Fernández Sánchez

Maite Etxeberria Elkoro

proiektatu@gmail.com

Telf: 688 631 452

www.proiektatu.com